

| <b>BOTANIKA APLIKATUA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA</b>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
|---|------------------------|---|---|------------------|----------------------|---|---|------------|-------|---|
| Irakaslea   | Olaiia Oneca Rodriguez |   |   | Maila            | Batxilergoko 1.maila |   |   | Ikasturtea | 20-21 |   |
| <b>IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN</b>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
| <p>Zientzietako ibilbidetik doazen ikasleei eskaintzen zaien ikasgaia da. 3 ordu astean. Edukiak bi multzotan banatuko dira. Lehenengoan landareak nolakoak diren aztertuko dugu; baita nola dauden antolaturik eta funtsean nola funtzionatzen duten ere, ekosistemen oinarriko osagaia bezala duten garrantzia aztertzearekin batera. Bigarrenean gizakiak nola erabili eta zer aplikazio eman dizkion landuko dugu: baratzeak, landareak eta gure elikadura, gure lorategiak eta sendabelarrak besteak beste.</p> <p>Trataera aktiboa emanen zaio ikasgaiari jarduera praktikoak eginez: gelan, laborategian, kanpoaldean,... beraz prozedurazko edukiek lehentasuna izanen dute.</p> <p>Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.</p> <p>Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.</p> <p>Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.</p> <p>Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko Arreta ez-Presentzialaren Plana.</p> |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
| <b>OINARRIZKO GAITASUNAK</b>  |                        |   |   | <b>UNITATEAK</b> |                      |   |   |            |       |   |
| 1) Hizkuntza komunikazioa.  | x                      | x |   | x                | x                    | x |   | x          | x     |   |
| 2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.   | x                      | x | x |                  | x                    | x |   | x          | x     | x |
| 3) Gaitasun digitala.   |                        | x |   |                  | x                    | x |   | x          |       |   |
| 4) Ikasten ikastea  | x                      | x | x | x                | x                    | x | x | x          | x     | x |
| 5) Gaitasun sozial eta zibikoak.  |                        | x | x | x                |                      | x |   | x          |       | x |
| 6) Ekimena eta ekintzailletza.  |                        | x | x |                  |                      | x |   | x          | x     | x |
| 7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.  |                        | x | x | x                |                      | x | x | x          | x     | x |
| <b>ETAPAKO HELBURU OROKORRAK</b>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
| Batxilergoa: <a href="https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1">https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1</a>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
| <b>EDUKIAK</b>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
| <a href="#"><u>BATX 1 BOTANIKA EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDARRAK</u></a>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |
| <p>Nolakoak dira eta nola funtzionatzen dute landareek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Landareen sailkapena eta talde bakoitzaren ezaugarri nagusiak.</li> <li>○ Landareen funtzioak: nutrizioa, harremana, ugalketa.</li> <li>○ Landareen banaketa: landaretza mapak...</li> <li>○ Landareak babesteko neurriak.</li> </ul> <p>Zertarako eta nola erabiltzen ditugu landareak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Lorategi-baratze lanak</li> </ul>  |                        |   |   |                  |                      |   |   |            |       |   |

- Baratzearen funtzionamendua.
- Baratzeke landareak. Landareak elikagaiak dira.
- Lorategiak.
- Sendabelarrak: aplikazioak, ukenduak...
- Kosmetika naturala: xaboiak

Skolae programako jardueraren bat landuko da kohezkuntza lantzeko.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

### BATX 1 BOTANIKA EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDARRAK

#### UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

| 1. Ebaluazioa |                                   | 2. Ebaluazioa |                              | 3. Ebaluazioa |                                |
|---------------|-----------------------------------|---------------|------------------------------|---------------|--------------------------------|
| Orduak        | Unitateak                         | Orduak        | Unitateak                    | Orduak        | Unitateak                      |
| 9             | Landareen sailkapena eta anatomia | 6             | Landareen fisiologia         | 5             | Landareen fisiologia           |
| 8             | Baratzeari buruzko lanak          | 12            | Gorolart: Goroldio-murala    | 10            | Iruñerriko lorategiak          |
| 11            | Baratze-lan praktikoak            | 5             | Gimnospermoen identifikatzea | 6             | Landaretza mapak               |
| 3             | Artikulu zientifikoak             | 4             | Artikulu zientifikoak        | 2             | Landareen erabilera praktikoak |
| 3             | Zuhaitzaren jarraipena            | 4             | Zuhaitzaren jarraipena       | 3             | Zuhaitzen jarraipena           |
|               |                                   | 4             | Baratze-lan praktikoak       | 9             | Baratze-lan praktikoak         |

#### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Edukiak prozedura ezberdinak erabiliz erdietsiko dira:

- Gelako lanak: banakoak, talde txikikoak edo talde osokoak izan daitezke.
- Laborategiko lanak: banako edo talde txikietan egingo dira ahal den guztietan.
- Baratzeko zein lorategiko lan praktikoak.
- Kanpoaldean: talde txikitan. Ateraldi batzuk egin daitezke: institutuko inguruetara, Iruñeko lorategietara, baratzeetara...
- Ikasle bakoitzak jarduera koadernoan egingo du.

Metodologiari dagokionean, talde lan asko IKKI egiturak erabiliz landuko dira.

#### EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

##### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Irakasgaiak oinarri praktikoa izanik, atal honi balio handiena emango diogu, kalifikazioa osatzeko ehunekoak honela banatuko dira:

- Azterketaren balioa: % 40
- Praktiken multzoa: % 60 (Koadernoan: % 10 - Praktiken garapena: % 20 - Lanak: %30)

Aipatutako atal bakoitzean, gutxienez 4 nota atera behar da. **Atal praktikoan baloratuko diren esparru guztiak egin edota entregatzea derrigorrezkoa da.**

Jarrera ez da nota kalkulatzeko kontutan izango, salbuespen gisa desagokia den kasuetan, klasea oztokatzen delako, portaera desagokia duelako etab. notaren %10a jaitzi daiteke arrazoi honengatik.

#### ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

**Borobiltzea:**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

**ERREKUPERAZIO SISTEMA**

Gainditu ez diren ebaluazioak berreskuratzeko, atal teorikoa zein praktikoa barneratzen dituen berreskuratze-plana garatuko da (azterketa+eskatzen diren lanak entregatzea).

Azken errekupeazioa: Suspendituta dauden atalen errekupeazioa egin beharko da.

**KANPOKO EBALUAZIOA**

Maila honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik

**OHARRA:** Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

Iruñea, 2020ko iraila.